



HERRIKO KONTSEILUKO ERABAKIA ORTZAIZEKO HERRIA

2022ko martxoaren 1eko bilkura

Bi mila eta hogeita batgarren urtean eta 2022ko martxoaren lehenean, zortziak eta erdietan, herri honetako Herriko Kontseilua, erregularitasunez deitua izanik, legeak manatzen duen kopuruan bildu zen, Herriko etxeko gelan, Jean-Marc OÇAFRAIN Auzapezaren lehendakartzapean

Hor zirenak : AYÇAGUER Elorri, CHAMALBIDE Corinne, DACHAGUER Peio, FALXA Odile, GOICOCHEA Iñaki, IDIART Claudine, IÑARRA François IRIART Jean Claude, JORAJURIA Ramuntxo, LEKUMBERRY Xantxo, MATEO Jean François, OÇAFRAIN Jean-Marc, PERUSANSENA Elodie

Barkatuak zirenak : CASIRIAIN Elena, HEGUY Antton

Bilkurako idazkari izendatua izan da : FALXA Odile

Deialdiaren eguna : 2022ko otsailaren 25a

Afitxatze eguna : 2022ko otsailaren 25a

15. ERABAKIA: BASERRIALDEKO ELEKTRIKATZEA – “Herriko argien zaharberitze (SDEPA) - 2021eko zaharberitze” programa Herriko parte diruztatze proiektua onartzea 21EP089 zk. dosierra Nomenklatura: 9,1

Jaun auzapezak herriko kontseiluari jakinarazten dio Pirinio Atlantikoetako ENERGIA SINDIKATUari ondoko obrak aztertzea eskatu diola: **Herriko argiak, “Burgu” 1. postuaren indartzeari lotua - DAC itzultzea**

Energia Sindikatuaren lehendakariak herriari jakinarazi dizkio egin beharreko eta HAZPARNEko COREBA enpresaren esku utzitako obren gastuak.

Jaun auzapezak zehazten du obrak horiek “Elektrikatzeta / HE zaharberitze (SDEPA) - 2021eko zaharberitze” programan sartuak izanen direla; herriko kontseiluari gastuen zenbatekoa onartzea eta obrak diruztatzea proposatzen dio.

Jaun auzapezaren azalpenak entzun ondotik, eta eztabaidatu ondotik, herriko kontseiluak:

- **ERABAKITZEN DU** gorago aipatutako obrak eginaraztea eta ENERGIA SINDIKATUaren esku uztea.

- **ONARTZEN DU** egin beharreko obren eta gastuen zenbatekoa, horrela osatuak:

- Obren zenbatekoa BEZa barne	8	
799,74 €		
- Obralaritza laguntza, obralaritza eta ustekabekoak	879,97 €	
- SDEPA kudeaketa gastuak	366,66 €	
OROTARA		10 046,37€

- **ONARTZEN DU** eragiketaren aitzinikusitako finantzabidea, horrela osatua:

- Sindikatuaren parte hartzea	5 646,50 €	
- BEZaren ordainsari funtsa	1 587 86 €	
- Herriak funts librean gainean finantzatu beharreko obretan parte hartzea	2	
445,25 €		
- Herriak kudeaketa gastuetan parte hartzea (funts librean gainean finantzatu beharrekoak)	366,66 €	
OROTARA		10 046,37€

Herriaren parte hartze finkoa finkatua izanen da obren behin betiko zenbatekoa finkatu ondotik.

Gainera, Herriak obretan parte hartzea "Funts librean gainean" diruztatzen baldin badu, SDEPAk aurrerakin bat edo batzuk eskatzen ahalko dizkio, egindako obren arabera.

- **ONARTZEN DU** herrilurretako jabari pribatuaren gaineko urrikako zortasuna, baita SDEPAk energia aurrezteko ziurtagiriak berreskuratzea ere, obrak hautagarriak direnean.
- **HELARAZTEN DIO** erabaki hori legezkotasun kontrolari.

Kide kopurua : 15
 Hor zirenen kopurua : 13
 Balizko boz kopurua : 13
 ALDE : 13
 KONTRA : 0
 ABSTENTZIO : 0

Hala erabakia, gaineko egun, hilabete eta urtean. Bertaratu diren kideek sinatu dute erregistroan. Araberatasunez ziurtatu erabakia.

ORTZAIZEn, 2022ko martxoaren 1ean
 Auzapeza,
 Jean-Marc OÇAFRAIN

Betegarria bilakatu den akta,
 2022/03/14an publikatu edo notifikatu ondoan,
 Eta Prefeturan pausatu ondoan 2022/03/14an.

